

Joxerra Aizpurua

INDUSTRIA INGENIARIA

## Hizkuntzaren industria euskal negozioa ote?

**I**ndustriako jarduerak salgarria den zer-bait ekoizten dute, batzuetan kate bateko azken produktua da, baina askotan katebegi bat baino ez da izaten. Hizkuntzaren industriak aipatu bi produktu-mota ekoizten ditu; batzuetan hizkuntza bera, hizkuntzaren inguruko teknologia edota itzulpenerako tresnak dira, baina produktu edo zerbitzu bat saltzeko edo eskaintzeko katebegiak ere, euskara edo espainola ezagutzen ez duen atzerritarra medikura joatean elkarren arteko komunikazioa erraztuko duen tresna edo zerbitzua adibidez.

Testu-prozesatzaileetan ditugun zuzentzaile ortografikoak edo enpresa batera deitzen denean “administrazioarekin hitz egiteko sakatu 1” esaten duen makina dira aplikaziorik arruntenetakoak, baina horiek negozio posible baten adarrak baino ez dira. Emigratioak eta globalizazioak hizkuntza-zerbitzuen bultzatzaile dira, jendearen komunikaziorako eta ulertze-beharrak batetik eta produktuak gizarte cleaniztun batean kokatu behar izateak bestetik, gero eta tiradizo handiagoa eragiten baitute hizkuntza-zerbitzuen alorrean.

Euskal Herrian aspaldiko kontuak dira hizkuntzaren industriaren inguruko burutapenak. Orain hiru hamarkada euskara industrian erabilgarri izateko urratsak ematen hasi zirenetik gaurdainoko epean enpresa eta talde ugari antolatu



DANI BLANCO

dira euskara eta gainerako hizkuntzen arteko konexio-bideak indartu nahian. Gainera, euskarak beste hizkuntzekiko duen egitura desberdina dela eta, beste hizkuntzetan ez bezala teknologia bereziak garatzera bultzatu ditugure ikerketa-enpresak eta horrek abantaila kompetitiboa ekar diezaguke; baina aitortu beharra dago jarduera horiek ez direla orain arte industriatzat hartu pertsona eta erakunde askoren baitan.

Gipuzkoako Foru Aldundiarena izan da hizkuntzaren industria industriatzat hartzeko ezagutu dudana ekimen garrantzizkoenetakoa garrantzizkoena izan ez bada.

Gipuzkoatik abiatuz, bertan baitugu hizkuntzaren industrian aritzen diren enpresa sorta dibertsoena, posible al da gure hizkuntzaren industria Europan zein mundu mailan estrategikoki kokatzea? Galderearen inguruan hizkuntzaren industrian egindako azterketarik sakonena egiten ari dira inplikaturako eragile asko.

Ez dakit zein emaitza aterako den eta beraz ez zait zilegi iruditzen aurreiritziekin hasia. Ingrediente onak egon badaude, esperientzia eta gaztetasuna, enpresa desberdinak eta sektore anitzekoak, amets egiteko ahalmena... eta industriatzat hartzeko eman beharreko urratsen inguruko kontzientzia orokorra ere bai.

Hurrengo baterako, beraz, emaitzen inguruko iritzia. ■

« Euskarak teknologia bereziak garatzera bultzatu ditugure ikerketa-enpresak, baina jarduera horiek ez dira orain arte industriatzat hartu erakunde askoren baitan »

### HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Auzoan zahartu ogia, jaki. Abertzaleen Bata-sunak gau bisitariak

izan ditu. Baimenik galdetu gabe, auzoek adieraziaren arabera goizaldean bortxaz sartu eta zituen ondasun urriak eraman dizkiote. Garbiketa egin dutela alegia. Lapurreta. Komisaldegian salatu ondoren, polizia judiziala arduratu da azterketaz. Ekin-tza politikoa dela berehala ebatzi dute. Ez dute dudarik. Aurkaria ahultzea, indargabetzea, joera ohikoa da zenbaiten estrategian. Hola azkartzen da zenbait, horretarako edozein dela ere erabilitako modua ontzat emanda. Estatuek asko dakite hortaz, eta adin batekoek ere bai.

## Pobrearen etxean

Gogoan ditut garai batean HBren egoitzan instalatutako tramankulu elektronikoak, informazioaren hartzaile haiek. Baita militanteen kotxetan ezarritako antenak ere, beren ibilerak jarraitzeko egokiera ematen zietenak. Aurreilegalizazioak. Eremua zabaltzen ari dira. AB ez dute gogoko, desaktibatu nahi dute, enbarazu egiten die. Ordenagailuetako informazio osoa, kopiak, lan tresnak lapurren agintarien esku daude. Etsaiari ogi apurrik ez, dute lege. Seguritatea estakuru. Antiterrorismoa aterbe. Eta hau guztia, demokrazia dute. Agian, mezu elektroniko berriak hasiko gara jasotzen, gure sistemak “spam” legez joko dituenak. Agian. ■